

GAILU MUGIKORRAK: Zure negozioa arindu eta eraginkorragoa egin gailu mugikorrek erabilia (2 ordu eta erdi)

Eguna: 2019/10/01

Ordua: 13:30-16:00

Lekua: Debagoieneko Mankomunitatea. Nafarroa etorbidea 17, Arrasate

- **MUGIKORRETIK TALDEAN LAN EGIN**

- ✓ Agendan hitzorduak sartu eta ailegatu zaitez toki guztietara puntualtasunez eta bidean galdu barik.
- ✓ Lainoan informazioa gorde eta partekatu beste gailuetan eskura izateko. Mugikorrean egiten dituzun ekintzak gorde eta partekatu.
- ✓ Gailu mugikorretatik zure ordenagailura sartu
- ✓ Mugikorrean instalatuta daukazun aplikazioak ordenagailuan erabili lana errazteko asmoz.
- ✓ Talde-lana mugikorretik kudeatu, antolatu, banatu eta edozein momentutan lanaren egoera ezagutu.
- ✓ Post-it birtualetan betebeharrak eta gogoratze-abisuak idatzi eta partekatu

- **PRODUKTIBITATEA AREAGOTU**

- ✓ Dokumentuak eskaneatu eta beraiekin lan egin zuk idatzi bazenitu bezala (OCR).
- ✓ Konturatu zaitez mugikorrean zenbat denbora eman duzun eta berarekin zer egin duzun.
- ✓ Zure NAN dokumentuarekin mugikorretik bertatik dokumentuak sinatu.
- ✓ Gogoratu azken egunetan non egon zaren. Partekatu zure kokapena edonon aurkitu zaitzaten.
- ✓ Egunero hainbat alditan errepikatzen diren eginkizunak zure orde egiteko mugikorra programatu.
- ✓ Zure deiak grabatu gerora erreparatzeko edo berridazteko.
- ✓ Erabili zure gailuak Moleskine bat bailitzan.
- ✓ Zure argazkiei apunteak gehitu eguneroko lanean laguntzeko

- **AREAGOTUTAKO eLANGILEA:**

- ✓ Areagotutako errealitateari esker edozein hizkuntzatik testuak itzuli, edonorekin hitzegin ahal izateko.
- ✓ Errealitate birtualarekin formakuntza eman.
- ✓ Smartphonari ahozko aginduak eman betebeharrak egin edo informazioa azkar aurkitzeko.

- **GAILUEN SEGURTASUNA ETA BERRIKUSPENA**

- ✓ Mugikorrera sarrera ez legitimoak identifikatu edo mugikorraren lapurra identifikatu.
- ✓ Galdu baduzu aurkitu zure mugikorra. Lapurtu badizute bertan dauden datuak ezabatu.
- ✓ Mugikorraren memoria kudeatzen eta optimizatzen ikasi.
- ✓ Teklatu desberdinak ezagutu eta bakoitzaren abantailak ikus